

- “Langilea, bakarrik, ez da ezer, baina batzen bagara indarra izango dugu. Gatazka modu txarrean bukatuko da; grebara joan beharko dugu, eta horretarako diru-funtsa sortu behar da. Une batean, erresistentzia-kutxa bihurtuko da. Zenbat eta diru gehiago bildu, orduan eta denbora luzeagoan eutsiko diogu grebari”.

- “Kuotak biltzea zailena da: urtean 50 zentimo funts orokorrerako, eta bi libera atal sindikalerako... Gehiegi da, inork ez du ordaindu nahiko”.

- **Mundu berri bat sortu behar da, justuagoa, gure lege propioak indarrean jartzeko.**

Nondik atera dira esaldi borobil hauek?

‘Germinal’ pelikulan entzun ditzakezue, greba bat hasi baino lehenago. Filma 1993koa bada ere, Emile Zolaren eleberri batean oinarrituta dago. 1864 eta 1884 urteen artean garatzen da istorioa, hain justu, Frantziako sindikatuak legeztatu baino aurreko greba handietan.

Hau da, erresistentzia-kutxa gutxienez, orain dela 150 urte sortu zen eta munduko literaturaren klasiko batean langileentzako ezinbesteko tresna bezala aldarrikatzen da.

Are gehiago, sindikatuak sortzeko (edo legeztatzeko) grebetan erresistentzia-kutxa erabili bazen, horrek frogatzen du kutxa sindikatua baino zaharragoa dela. Hau da, kutxarik gabe, sindikaturik ez. Non geundeke gu?

Jakina denez, sindikalismo historikoaren irakaspenak barneratuz, 1978an ELAk gaur ezagutzen dugun erresistentzia-kutxa sortzea erabaki zuen, eta afiliatu bakoitza bere kuotaren %25 funts horretara bideratzen hasi zen. Gaur arte.

‘Germinal’ eleberrian aldarrikatzen zen bezala:

**“Mundu berri eta justuago bat lortu arte”.**

## Erresistentzia kutxa, inoiz baino indartsuago

Afiliatuen **hileroko kuoten %25** Erresistentzia Kutxara doa. Funts hori ezinbesteko tresna da borroka sindikalerako. Hortik datozen laguntza-sariak hiru egun betetik aurrerako grebetan ordaintzen dira.

### Erresistentzia Kutxa Arrunta: **1.163,72 euro/hilean**

(2019an baino %5,5 gehiago)

Enpresa sindikalizatuetan, hau da, langileen %35 edo gehiago ELAn afiliaturik badaude, aurreko zenbatekoari %15 gehituko zaio. Hortaz, Kutxa indartua 1.338,28 euro/hilean izatera iritsiko da 2020an.

Azkenik, Kutxa berezia -estrategikoak diren sektoreetan edo grebetan- 2.328 eurora ere heldu daiteke hilean.

Diru-kopuru horiek ezin dira izan kobratzen duen ohiko soldata baino handiagoak.

**Gardentasuna:** eskubide-eginbeharrak ezarrita dauden arautegi argi bat dago. Kongresu bakoitzean aurreko laurtekoan kutxan izandako gorabeheren berri ematen da.

### Aldaketa tratamendu fiskalean

2018an euskal ogasunek beren irizpidea aldatu zuten Erresistentzia Kutxaren tratamendu fiskalaz. 38 urtean diru-sarrera horiek salbuetsita egon dira, baina aurrerantzean lan-errentatzat hartuko dira. Hori dela-eta, ELAk kasuan kasuko atxikipenak egin behar ditu, eta jasotzaileek diru-sarrera horiek errenta-aitorpenean agertu behar dituzte.

Edonola ere, diru-kopuru horiek garbiak dira, grebalariek jasotako diru-kopuruei %2ko atxikipena egin zaie alde zuzenetatik. ELAk nahitaez onartu behar izan du irizpide-aldaketa hori. Dena dela, beti salatuko ditugu halako erabakiak, langileria-aren kaltetan doaz-eta; are gehiago kasu honetan, gizartea aldatu nahian ari diren langileak direlako kaltetuak.

# Caja de resistencia 2020



## Sin caja de resistencia, no hay sindicato

¿Qué fue primero, la caja o el sindicato?  
En el caso de ELA, la existencia y el uso de la caja de resistencia durante las huelgas es una de nuestras características más distintivas, y lo que permite que la acción sindical sea efectiva y obtenga logros importantes. Sin embargo, la caja de resistencia, que en 2020 alcanzará una dotación de 1.163 euros mensuales (caja ordinaria), no es un invento de ELA, sino que nació como una herramienta para... icrear sindicatos!

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

ela.eus    

- “Un trabajador solo no es nada, pero si nos unimos seremos fuertes. El conflicto terminará mal; tendremos que ir a la huelga, y para eso hay que crear un fondo económico, que en su momento se transformará en caja de resistencia. Cuanto más dinero se reúna, más tiempo se podrá resistir”.

- “Lo más difícil es recaudar las cuotas: 50 céntimos para ese fondo, y dos francos para la sección sindical... Es excesivo, nadie querrá pagar”.

- “Hay que crear un mundo nuevo, más justo, para aplicar nuestras propias leyes”.

¿De dónde proceden esas frases tan contundentes?

Están extraídas de la película ‘Germinal’. Aunque data de 1993, está basada en una novela del mismo título de Emile Zola, y el relato se sitúa entre 1864 y 1884, en el periodo coincidente con las grandes huelgas previas a la legalización de los sindicatos en Francia. Por tanto, puede concluirse que la creación de la caja de resistencia se remonta a hace por lo menos 150 años; y así, en un clásico literario, se consagra como una herramienta ineludible para la clase trabajadora.

Pero aun hay más, si la caja de resistencia se utilizó en las huelgas por la creación o legalización de los sindicatos, cabe decir que la caja es anterior al sindicato mismo. O lo que es lo mismo, sin caja, no hay sindicato. ¿Dónde estaría ELA?

Como es sabido, ELA, haciendo suyas las tesis del sindicalismo histórico, decidió recuperar la caja de resistencia, tal y como la conocemos actualmente, en 1978. Y desde entonces, se empezó a destinar a tal fin el 25% de las cuotas de afiliación, hasta hoy. Y como colofón, el mensaje de ‘Germinal’:

**“Hasta alcanzar  
un nuevo mundo más justo”.**

## La caja de resistencia, más fuerte que nunca

**El 25% de la cuota mensual de afiliación se destina a la Caja de Resistencia.** Se trata de un instrumento indispensable para la lucha sindical y se empieza a abonar en las huelgas que alcancen los tres días completos de duración.

### Caja de Resistencia Ordinaria:

**1.163,72 euros/mes**

(5,5% más que en 2019)

En las empresas sindicalizadas, es decir, donde al menos el 35% de la plantilla esté afiliada a ELA, el importe anterior se incrementará un 15%. Es decir, la llamada Caja reforzada alcanzará los 1.338,28 euros al mes en 2020.

Finalmente, la Caja especial –en huelgas o sectores considerados estratégicos– la ayuda de la Caja puede llegar a los 2.328 euros mensuales. Estas cantidades nunca podrán superar el salario ordinario.

**Transparencia:** hay un reglamento claro que establece derechos y obligaciones, y en cada congreso se informa de las cantidades destinadas a la Caja en ese cuatrienio.

### Cambio en el tratamiento fiscal

En 2018 se produjo por parte de las haciendas vascas un cambio de criterio sobre el tratamiento fiscal de la Caja de Resistencia. Durante 38 años han estado exentas, pero a partir de ahora serán consideradas rentas de trabajo, por lo que ELA debe realizar las retenciones correspondientes, y los perceptores de la Caja tendrán que declarar los ingresos recibidos en su declaración de la renta.

En todo caso, las cantidades referidas son netas; a lo percibido por las personas en huelga se les ha aplicado ya la retención del 2% correspondiente. Es un cambio de criterio que ELA ha tenido que acatar, aunque seguiremos denunciando decisiones como ésta, que perjudican a la clase trabajadora y, en este caso, además, a las personas que luchan para cambiar esta sociedad.

# Erresistentzia kutxa 2020



## Erresistentzia kutxarik gabe, sindikaturik ez

Zer izan zen lehenik, kutxa ala sindikatua? ELAren kasuan, grebak egin bitartean erresistentzia kutxa erabiltzea da gure ezaugarri bereizgarrienetako bat, eta horrek ahalbidetzen du ekintza sindikala eraginkorra izatea eta lorpen garrantzitsuak lortzea. Hala ere, erresistentzia kutxa, 2020an hilean 1.163 eurokoa izango dena (kutxa arrunta), ez da ELAren asmakizun bat, baizik eta ... sindikatuak sortzeko tresna gisa sortu zen!

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

ela.eus

